

# MUk antolaturiko Euskadiko Unibertsitate arteko Kirol Txapelketaren IX. Edizioa

2009/03/06

Euskadiko Unibertsitate arteko Kirol Txapelketaren bederatzigarren edizioa antolatzeaz arduratu da Mondragon Unibertsitatea. Bertan, hiru unibertsitateetako 400 ikaslek hartuko dute parte (100 emakumezko eta 300 gizonezko). Kirol-hitzorduak martxoaren 5ean izango dira Debagoieneko bi herritan, hain zuzen, Arrasaten eta Aretxabaletan. Txapelketa Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzak babesten du. Mondragon Unibertsitateko (MU), Deustuko Unibertsitateko (DU) eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikasleak 16 kirol modalitateetan lehiatuko dira, Euskadiko txapelkun titulua lortzeko. Horretarako, aurrez lehiatuko dira hiru unibertsitateetako fakultateak, beren unibertsitatea Euskadiko hiruko txapelketa horretan ordezkatzeko duten modalitate bakoitzeko irabazleak aukeratzeko.

## Euskadiko IX. Txapelketa

Txapelketa hori irabazten duten ikasleek Espainiako Unibertsitate arteko Kirol Txapelketan hartuko dute parte. Hori 2009ko apirilaren 20tik maiatzaren 12ra bitartean egingo da Vigon, Kantabrian, Leonen, Valladoliden, Zaragozan, Granadan eta Almerian; eta Estatuko unibertsitate guztietako ikasleak bilduko ditu. Munduko Unibertsitate arteko Kirol Txapelketako Nazioarteko Txapelketak, nazioarteko hainbat lekutan egiten direnak, unibertsitate arteko kirol-hitzorduaren hurrengo urratsak izango dira.

Lehiaketa horretan, 149 ikaslek ordezkatzeko dute Mondragon Unibertsitatea, 115 ikaslek Deustuko Unibertsitatea, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen izenean, berriz, 154 ikasle lehiatuko dira. Horiek guztiak IX. edizioko irabazle-titulua lortzeko lehiatuko dira beraien artean.

Eskubaloia, errugbia, eskupilota, gomazko paleta, saskibaloia, frontenisa, squasha, mahai-tenisa, xakea, futbola, areto futbola, futbol 7a, tenisa, padela, eskalada eta waterpoloak dira Euskadiko joko horietako hamasei modalitateak. Lehiaketak Arrasateko Iturripe, Musakola eta Uarkapeko Polikiroldegietan eta Aretxabaletako Futbol Zelaian egingo dira.

Unibertsitateko ikasleen artean kirola sustatzea da Euskadiko txapelketa hori abiaraztearen helburu nagusietariko bat. Zentzu horretan, Mondragon Unibertsitateak eginiko apustua agerikoa da. 1997an unibertsitateak bere kirol-zerbitzua jarri zuen abian. Bertatik, makina bat kirol-jarduera antolatzen eta sustatzen dira. Helburu hau du: unibertsitate-komunitatean, ikasleen artean, benetako aisialdi eskaintza gisa kirola sustatzea, ikaslearen heziketa integralaren parte garrantzitsua den aldetik.

